

Enpresa honek dituen kostuak hauek dira: kanalen kostuak, fabriken kostuak, soldatak, makinaren kostuak, logistikaren kostuak, simuladorearen kostuak eta produktuaren kostuak.

Lehenik eta behin, arestian aipatu ditugu Olympus Aviation-ek izango dituen kanalek, interneta (web orrialdea), telefonoa eta korreo elektronikoa, kontuan hartu beharreko kostuak dira. Hasteko, Googlen web orrialde bat izateko domeinuagatik ordaindu behar da. Web orrialde bakoitzagatik prezio desberdinak daude, orrialdearen gaiaren arabera. “.com” domeinua izateagatik 12€ urtero ordaindu behar dira eta domeinu hori izango da Olympus Aviation erabiliko duena. Horrez gain, guk nahi dugun web-orria oso sinplea denez, kostea ez da oso handia izango. Web orrialdeak diseinatzen dituen enpresa batekin kontsultatu eta gero, diseinuaren kostua 569€-koa izango da. Korreo elektronikoa eta web orrialdea funtzionatzeko WiFi konexio on bat beharrezkoa da. Espainian dauden konpainia ezagunen prezioak aztertu ondoren gehien konbentzitu digun prezioa Vodafonekin eskaintzen duena da, 300mb-ko fibra optikoa 24.85€ hilabete kostatzen duena. Bestalde, korreo elektronikoaren domeinua izateko kostua urteko hogeit hamar euro bitartekoa da, bakoitzak nahi duen seguritatea eta abantailen arabera. Gure ustez, aukera hoberena kontratatzea beharrezkoa da. Hori dela eta, gure urteko kostua web orrialdeetan 40€-koa izango da. Bukatzeko, zerbitzu teknikoa izateko eta bezeroekin kontaktatzeko telefonoa beharrezkoa da. Hori dela eta, Vodafonekin bi telefono finkoen prezioa 17€/hilero da.

Bigarrenik, gure produktuak non sortu behar diren tokia edo lokala beharrezkoa da. Azken batean, motorra sortzeko makinak eta langileak behar dira eta horiek lan egiteko eremu bat behar dute. Guk Vitoria-Gasteizen bizi garenez, fabrika hemen izatea gustatuko litzaziguke eta Sansomendiko auzoan 1.250 m² nabe bat aurkitu dugu hilero 3.750€ kostatzen duena.

Hirugarrenik, lehen esan bezala langileak behar dira. Izan ere, nahiz eta guk prototipo bat egiteko gai garen, ez dugu unibertsitateko karrera bat egin eta ez dakigu motorra nola egin. Gure ustez, 20 langileekin hasieran nahikoa dugu motor batzuk sortzeko. Langile bakoitzaren soldata 3.000€/hilero izango da.

Laugarrenik, makinak ezinbestekoak dira. Beharrezkoak ditugun makinetan 100.000€ inguru gastatu behar ditugu. Gure produktuan, ondo ikusi daitekeen moduan, makinaren erabilera funtsezkoa da produktua lantzeko eta aurrera eramateko arazorik gabe. Adibidez, motoreak egiteko makina, oso garrantzitsua da eta horren arabera, aurre ikusi dezakegu zein nolako garrantzia duten.

Bostgarrenik, logistika oso garrantzitsua da gure enpresarako motoreak garraiatu ahal izateko. Horregatik, DHL enpresak lan hau betetzeko enpresa egokiena da. 10.000€/igorpen bakoitza.

Seigarrenik, simuladorea daukagu, oso garrantzitsua gure produktuan. Simuladorearen kostua 3000€-koa da. Horren arabera, simuladorea mantendu eta garatu dezakegu arazorik gabe.

Azkenik, produktua daukagu. Motoreak guk egiten ditugu, hala ere, motore hauek egiteko, gure produktua osatzen duten piezak eta materialak behar ditugu. Pieza eta material guztien prezioen batura 200.000€-koa da.

Laburbilduz, enpresaren kostuen arabera, bakoitzak zein kostu duen argi geratu den: kostu finkoak, 869.123,2€ izango dira, kostu aldakorak, 210.000€-koak eta azkenik kostu totala, 1.079.123,2€-koa izango da.

OLYMPUS AVIATION KOSTUAK		
Kanalak	Interneta	24.85€/hilero → 298.2€/urtero
	Korreo elektronikoa	40€/urtero
	Telefonia	17€/hilero → 204€/urtero
	Web orrialdea	12€/urtero + 569€ = 581€
Fabrika (lokala)	3.750€/hilero → 45.000€/urtero	
Soldatak	3.000€/langile hilero → 720.000€/urtero	
Makinak	100.000€	
Logistika	10.000€/igorpen bakoitza	
Simuladorea	3.000€	
Produktua	200.000€/motor bakoitza	
KOSTU FINKOAK		869.123,2€
KOSTU ALDAKORRAK		210.000€
KOSTU TOTALA		1.079.123,2€